

10. AKTA

2002ko irailaren 16an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

NON: Pasaiako Herriko Udaletxean

DATA: Bi mila eta biko irailaren hamaseian

AZALDUAK: Joseba Xabier Portugal Arteaga, j.

Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.

Obdu Lorenzo de Dios a.

Lehendakaria: Joan Karlos Alduntzin Juanena j.

Lehenengo deialdian eta Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian bildu dira goian aipatu zinegotziak Joseba Belaustegi Cuesta Jaun Idazkaria bertan delarik, Gobernu Batzordea ospatzeko horretarako egindako deialdiaren arabera. Ez du agertu ezin etorria Anjel Ouviaña Vidal zinegotzi jaunak

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea osatzeko behar hainbat partaide agertu dela batzarraldia irekitzat eman du 9,30etan, ondoren Gaizerrendako puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko 9. akta 2002ko uztailaren 29koa irakurri eta onartzea.

Atalburuan aipatzen den akta bertakoen kontsiderazioan jarririk, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du bere osoan ontzat eman eta dagokion Akta Liburuan transkribatzea.

2.- Ebazpen judizialen berri ematea.

Euskal Herriko Justiziaren Auzitegi Gorenaren Liskar Auzi Administratiboaren Aretoko 574/02 sententziaren berri eman da, 3. Sekzioan, 961/98 zka. daraman Liskar Auzi Administratiboan emana, Ohiko Prozeduran, zeineko epaian Ignazio Garaialde Velaz jaun abokatuak tartekatua Winterthur Seguros, S.A.-ren izen eta ordezkartzan, Pasaiako Udalak 1998ko urtarrilaren 13an hartutako erabakiaren aurka, zeinak onartzen baitu 1995eko azaroaren 17an gertatutako euriteen ondorioz Euskadi Etorbideko 27an dagoen “Confeciones Karmele” komertzioan izandako kalteengatik 1997ko maiatzaren 22an aurkeztutako erreklamazioa, ebazpen inpugnatua zuzenbidez egokia dela deklaratu eta kostuak inori ezarri gabe.

3.- 02/9. kontu fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo kontu-fakturak, hurrengo zuzenketa egin ondoren:

1107-001-2002 faktura zkan., "TIZON MIGUELEZ JAVIER" dioen lekuan
"SAYANS S.COOP." esan behar du

1107-002-2002 faktura zkan., "TIZON MIGUELEZ JAVIER" dioen lekuan
"SAYANS S.COOP." esan behar du

9/02 zka.

Zenbatekoa: 211.896,57 euro (BERREHUN ETA HAMAIIKA MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO).

KONTRATAZIOA

4.- 1. ziurtagiria "C-7 Antxo Iparra 01 Hiriguneko Berrurbanizazioa" obrarena.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, eta Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

1. zka.

Obra: "C-7 Antxo Iparra 01 Hiriguneko Berrurbanizazioa

Obra-zuzendariak: José M^a Irazusta j. (Udal Aparejadorea) eta Igor Urrutia j.

URBYCOLAN, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: EHUN ETA HAMAIRU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO
ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (113.884,98 Euro)

D-400/2002 Disposamenduaren kargura.

5.- 3. ziurtagiria "San Juan kaleko 114. zenbakiko eraikina konpontzeko".

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, eta Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

3. zka.

Obra: "San Juan kaleko 114. zenbakiko eraikina konpontzeko".

Obra-zuzendariak: Mónica Benko Beobide eta Cristina Arkauz eta José M^a Irazusta j. (Udal Aparejadorea)

BIOK ETXEGINTZA, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA ZAZPI MILA ETA HAMALAU EURO ETA HAMALAU
ZENTIMO (47.014,14 Euro).

D-692/2001 Disposamenduaren kargura.

6.- 1. eta 2. ziuurtagiriak "Gudari Plazaren urbanizazioarena".

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, eta Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziuurtagiria:

1. eta 2. zka.

Obra: "Gudari Plazaren urbanizazioarena".

Obra-zuzendariak: Agustin Errea Oiarzabal j. (Arkitektoa) eta José M^a Irazusta j. (Udal Aparejadorea)

PROBISA TECNOLOGIA Y CONSTRUCCION, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: Hurrenez hurren, BERROGEITA BAT MILA ETA EHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (41.157,51 Euro) eta OGEITA HAMAHIRU MILA ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (33.053,60 Euro).

D-398/02 Disposamenduaren kargura.

GAZTERIA ETA KIROLAK

7.- Onintza Elkarteari dirulaguntzak.

2002ko uztailaren 8ko Kirol Patronatuaren Lehendakariaren proposamenez, Gobernu Batzordeak aho batez

ERABAKI DU

ONINTZA KIROL ELKARTEARI 709,19 ez-ohiko dirulaguntza Pasaiako Udal Kiroldegiaren erabilerarengatik duten gastua gutxitzeko.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-910/02 Baimenduaren kargura.

8.- 02-6-20ko Gobernu Batzordeko 15.eko akordioaren akatsen zuzenketa.

Oharturik 2002ko ekainaren 20an Gobernu Batzordearen akordioan oker materiala eman zela, 2002ko Lantegiko Kanpoetarako Aranzadiri emandako subentzioari buruzkoa, eta Herri Administrazio eta Prozedura Administratibo Amankomunaren Erregimen Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 105.2 artikulua araber, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

aurreko ebazpenean oharturiko oker materiala ofizioz zuzentzea eta zehazki emandako subentzioaren kantitateari buruzkoa, 1.803,54 eurokoa baita eta ez akordioan gaizki jartzen den 2.103,54 eurokoa.

GIZARTEKINTZA

9.- Gipuzkoako Marinel Omenearen Elkartearentzat dirulaguntza

“Gipuzkoako Marinel Zaharren Omenean” elkarteak Pasaiako Udalari dirulaguntza-eskaera egin dio. Elkarte honek uztailaren 16an ospatu zuen 75. Urteurrena eta bertan hainbat arrantzale pasaitar omendu zituzten. Ospakizun horretan hainbat ekitaldi izan zituzten eta horiek diruz laguntzeko egin diote udalari eskaera.

2002ko uztailaren 24ko Gizartekintzaren Zinegotzi-Delegatuaren proposamenez, Gobernu Batzordeak zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

“Gipuzkoako Marinel Zaharren Omenean”elkarteari 200 Euro dirulaguntza ematea.

Diru-kopuru hori honako partida honetatik bideratzea: 04.481.456.10.03 eta hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-992/02 baimenduaren kargura.

HIRIGINTZA

10.- A.I.U. 2.05.02 Arrandegi Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onarpena.

Ortuibar, S.A.-k aurkeztu duen A.I.U. 2.05.02 Arrandegirako Urbanizazio Proiektua, hain zuzen ere 53 etxebizitza, lokal komertzial eta garajeak egiteko proiektuarekin batera gauzatzeko dena, eta Jose Antonio de Francisco Ugartondok egindakoa, jendeaurrean egon da hamabost egunetako epe batean

Epe horren barruan ez da alegaziorik aurkeztu,

Udal Teknikari aholkulariak obra lizentziaren aldeko bi txosten egin ditu 2001ko ekainaren 18an eta 2002ko abuztuaren 22an.

Kontutan hartu dugu Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 j) artikulua, urbanizazio proiektuen behin-betiko onarpena Alkateari dagokiola esaten bait du, eta baita ere 1999ko uztailaren 12ko Alkatetza Ebazpena, zeinaren bidez berari dagozkion eskuduntza batzuk Gobernu Batzordean delegatzen bait ditu,

2002ko irailaren 11ko Hirigintzako Teknikariaren proposamenez, Gobernu Batzordeak zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin betiko onarpena ematea A.I.U. 2.05.02 Arrandegiko Urbanizazio Proiektuari, Ortuibar, S.A.-k aurkeztu duena eta 53 etxebizitza, lokal komertzialak eta garajeak egiteko proiektuarekin batera gauzatzeko dena. Ez da alegaziorik aurkeztu eta Aurkeztutako urbanizazio proiektuaren testu bateratuak udal zerbitzu teknikoen oniritzia jaso du.

SEGUNDO.- Likidatzea udal eskubideak, behar bezela jakinarazi eta gero.

HIRUGARRENA.- Interesatuari akordio hau jakinarazi beraren kontra jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

11.- Bordialabora 27 behea eskubia, obra lizentzia.

María Aranzazu Garmendia Alberdi andreak 2002-05-13ko datan OBRA TXIKIA LEGALIZATZEKO LIZENTZIA eskatu zuen, bere etxebizitzaren kanpoko leiho-arotzia aldatzeko (Bordialaborda kalea, 27- behea esk..) Zehazki, bost leiho txuri bi orritakoak.

Udal teknikariak eskaera honi buruzko kontrako txostena egin du ikuskatze-bisita egin ondoren (2002-06-21); bertan adierazten denez, jarritako leihoen kolorea ez dator bat eraikineko gainerako leihoen kolorearekin.

Obrak egiteko aurrekontua 1.010,52 eurokoa da.

Horiek horrela eta kontuan hartuta 1999ko uztailaren 12ko Alkatearen Dekretua, hainbat eskumen Gobernu Batzordearen gain uzten dituen.

2002ko ekainaren 25eko Hirigintzako Teknikariaren proposamenez, Gobernu Batzordeak zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- María Aranzazu Garmendia Alberdi andreari OBRA TXIKIA LEGEZTATZEKO LIZENTZIA UKATZEA, hirigintzako arautegiaren arabera, eraikinen kanpoaldeko leihoen itxura homogeenak izan behar dutelako. Lizentzia ukatzen zaio leihoen kolorea txuria delako, eta eraikinaren gainerako leihoak brontze edo marroi kolorekoak dira.

BIGARRENA.- Hala ere, baimena eman ahalko zaio, baldin eta eraikinaren gainerako leihoen itxura berdina mantentzen bada. Horretarako, eta alde zurretik, jabekideen komunitatearen akordioa ekarri beharko du eta bertan kanpoko leihoen arotziaren homogeenotasuna mantentzeko konpromisoa hartu beharko dute kolore eta itxuraren aldetik. Era berean, zehaztuko dute zer arotzia eredu erabiliko duten aurrerantzean: neurriak, diseinua, kolorea, materiala, ...

HIRUGARRENA.-Udal tasak likidatzea, behar bezala jakinarazi eta gero.

LAUGARRENA.- Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea, honen kontra jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

ONDARE ERANTZUKIZUNAK

12.- Ondare erantzukizuneko hainbat erreklamazio.

A) Nieves Rubio Martínez andrearen erreklamazioa Euskadi Etorbidea – Gudari Plazako oinezkoen pasabidean erortzeagatik.

Ikusirik NIEVES RUBIO MARTÍNEZ andreak 2002ko uztailaren 16an aurkeztutako erreklamazioa, non bere desakordioa agertzen baitu Gobernu Batzordeak 2002ko maiatzaren 27an hartutako erabakiarekiko, non onartzen baitzen 2001eko urriaren 23an egindako erreklamazioa gaitzestearen aurka 2002ko martxoaren 3an tartekaturiko Erreposizio Errekurtsoa, eta non eskatzen den aurreko erabakia berriro kontuan hartzea, egin zitzaizkion arrastoengatik 2.000 euro erreklamatzeko dituelarik.

Kontuan izanik Herri Administrazio eta Prozedura administratibo amankomunaren Erregimen Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 117.3 artikulua araberako Erreposizio Errekurtsoren ebazpenaren aurka ezin dela berriro aipatu Errekurtsoa tartekatu.

Kontuan izanik halaber 2002ko maiatzaren 27ko ebazpenak onartu zuela NIEVES RUBIO MARTÍNEZ andreak egindako erreklamazioa, non eskatzen baitzituen 164,68 euro kontzeptu guztien izenean, bertako zinegotzien aho batez Gobernu Batzordeak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- NIEVES RUBIO MARTÍNEZ andreak 2002ko uztailaren 16an egindako eskaera gaitzestea, non Pasai udalari honetako Euskadi Etorbidea – Gudari Plazako oinezkoen pasabidean 2001eko urriaren 13an erori eta jasandako ondorioen kontzeptuan 2.000,- euro eskatzen baitzituen.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsoei.

B) M^a Isabel Abalia Abalia andrearen erreklamazioa Oarso kaleko oinezkoen pasabidean 2002ko ekainaren 6an hanka zulo batean sartuta eroriz izandako kalteengatik.

Ikusirik M^a ISABEL ABALIA ABALIA andreak 2002ko ekainaren 18an egindako erreklamazioa, non eskatzen duen 12.000,- euroko kalte-ordaina Oarso kaleko oinezkoen pasabidean 2002ko ekainaren 6an hanka zulo batean sartuta eroriz izandako zaurien kontzeptuan, 2002ko uztailaren 5ean idatziz anpliatua.

Ikusirik idazki honekin batera larrialdien txostena dagoela non diagnostikatzen diren ezkerreko gorputzadarrean kolpeak.

Ikusirik halaber dagoela bigarren txosten bat Traumatologiako espezialista batena, non konstarazten den lumbareko bihurtura bat, lehenengo txostenean agertzen ez zena, nahiz eta ez zehaztu baja-egunak eta gera daitezkeen ondorioak.

Ikusirik Aseguru Konpainiaren idazkia zeinekin baitauka Udala poliza suskribatua eta informatzen duen erreklamatzailaren eta haren arteko akordioa.

Kontuan izanik Udalarri dagokiola 901, 52 euroko frankizia abonatzea. Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Allianz Seguros Konpainiari bankuko taloi-bidez 901,52 euro ordaintzea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin.

C) Engrazia Irene Fervenza Sanz andreak formulaturiko erreklamazioa Oarso izkina Gelasio Aranburu gunean 01-9-15ean erorita izandako kalteak direla eta, zintarri-hustubidearekin behaztopo eginda.

Ikusirik ENGRAZIA IRENE FERVENZA SANZ< andrearen mandatariak 2002ko ekainaren 20an egindako erreklamazioa, non eskatzen dituen 16.017,31 euro izan dituen lesioak eta galerako egunengatik, ambulatorioaren ondoan, Oarso izkina Gelasio Aranburu gunean 01-9-15ean erorita izandako kalteak direla eta, zintarri-hustubidearekin behaztopo eginda.

Ikusirik CASER talde aseguratzailako Ezbeharren Departamenduak egindako proposamena zeinekin baitzuen Udalak Ondare Erantzukizunaren kontratua, non gaitzesten duen Fervenza andrearen erreklamazioa, zeren eta iztripuaren deklarazioaren arabera lesionatua jada galtzadan aurkitzen baitzen eta erretiratzekoan gertatu zen autoa zetorrela eta atzera egin zuela eta erori eta beraz lesionatuak berak asumitu behar ditu arriskuak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- ENGRAZIA IRENE FERVENZA SANZ andreak egindako ondare-erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin.

D) Felisa González Iraola andreak egindako erreklamazioa San Pedroko Alkateordetzaren parean 2001eko azaroaren 15ean erortzeagatik Herriko Plazan obrak egiten ari zirela eta.

Ikusirik FELISA GONZALEZ IRAOLA andrearen ordezkariak tartekaturiko Erreposizio Errekurtsoa 2001eko azaroaren 21eko erreklamazioaren ustezko gaitzespenaren aurka, 2002ko martxoaren 8an alegazioen idazkiarekin anpliatua, non eskatzen duen 6.010,05 euroko kalte-ordaina San Pedroko Alkateordetzaren parean 2001eko azaroaren 15ean erortzeagatik Herriko Plazan obrak egiten ari zirela eta izandako kalte fisiko eta ondorioengatik.

Kontuan izanik ez dela kreditatu kausalitate-erlazioa erreklamatzaillearen eta udal-zerbitzuen funtzionamenduaren artean, zeren eta hormigoien arteko desnibel txikia ez baitu justifikatzen erorketa, eta gainera erreklamatzailleak arazo larriak baititu egonkortasuna mantentzeko, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- FELISA GONZALEZ IRAOLA andreak egin erreklamazioa gaitzestea gure ustez ez dagoelako lotura kausalik erorketa eta udal-zerbitzuen artean eta istripua erreklamatzailari berari inputatu behar zaiolako.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin.

- Gai-zerrendatik kanpo eta bilkuran ziren zinegotzi guztien adostasunez gai-zerrendan sartzea onartu ondoren, honako akordioa hartu du Gobernu Batzordeak:

13.- 3. ziuertagiria (azkena), "Meipi Ondoa 1.02.4 Exekuzio Unitatearen" obrarena.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, eta Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziuertagiria:

3. zka. (azkena)

Obra: "Meipi Ondoa 1.02.4 Exekuzio Unitatearen"

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lazparán j., Igor Urrutia j. eta José M^a Irazusta j. (Udal Aparejadorea)

CONSTRUCCIONES OTEGI, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BOST MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (5.466,96 Euro).

D-1343/01 Disposamenduaren kargura.

14.- 7. ziuertagiria "Arizabalo Jauregiaren Zaharberritzea, Donibane kalea, 19an" obrari dagokiona.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, eta Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

7. zka.

Obra: "Arizabalo Jauregiaren Zaharberritzea, Donibane kalea, 19an"

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal j. (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta j. (Udal Aparejadorea) TECPROPASA EUSKADI, S.A. (TEUSA) eta CONSTRUCCIONES J. URRACA, S.A. (U.T.E. ARIZABALO) enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEI MILA ETA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA BERROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (40.383,51 Euro).

D-1624/01 Disposamenduaren kargura.

15.- Bolondresen Elkargoari subentzioa. "Procivil" Pasaiako Babes Zibila.

Ikusirik Pasaiako Babes Zibileko Bolondresen Elkargoaren idazkia Elkargo hau sortu berria dela jakitera emanez, zeinen helburua, Estatutuetan jasotzen den bezala, Pasaiako udalerriri lagundu eta kolaboratzea baita, eta baita hainbat kultur, kirol- eta abar entitateri ere eta orobat jai-batzordeei, larrialdi-egoeretan eta baita era guztietako jaialdi eta kirol-probetan ere.

Ikusirik aipatu Elkargoak subentzio ekonomikoa eskatzen duela erremintak direla eta egindako gastuentzat.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udaltzaingoko Zinegotzi Delegatuak 2002ko irailaren 14an egindako proposamenez,

E R A B A K I D U

"PROCIVIL" Pasaiako Babes Zibileko Bolondresen Elkargoari 600,01 euro abonatzea.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 02-226-222-10-99 partidaren eta A-1106/02 Baimenduaren kargura.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, 10:30etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.